

# BALIO PROPOSAMENAK

Gure gizartearen bizi erritmoa geroz eta azkarragoa da, kutsadura eta zaborra gure egunerokotasunean dauden errealitateak bilakatu dira. Gainera, ekosistemak galtzen doaz eta tenperatura urtero altuagoa da. Ondorioz, gure planetako hainbat ekosistema okertzen ari dira. Adibidez, itsaspeko ekosistema suntsitzen ari da urak daukan tenperatura altuaren eraginez, eta faktore hau oso kaltegarria da itsaspeko bizidunentzako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, gure proiektua baliabide kontsumo arduatsuaren baitan eraiki behar genuela argi eduki genuen. Giza eskubideak kontuan hartzen eta ekologiarekiko arduratsuak izaten saiatu gara momentu oro, gizartea eraldatzeko modu bat lortzen saiatuz. Gure aletxoahalea eta mundua aldatzeko helburuarekin sortu zen Goiana taldea. Gizarteko eragile guztiek denon arazoa den zaborrari aurre egiteko asmoz.

Proiektu hau aurrera eramatea behar-beharrezkoa ikusi genuen. Ekosistema gehiago kaltetzen goazen einen, zailagoa izango delako atzera bueltatzea eta arazoa konpontzea. Beraz, lehenbailehen hasi beharko gara proiektua aurrera eramaten. Gure proiektuan pertsona guztiak inplikatzeko ditugu eta birziklapena sustatzen dugu gizartean, azkenean denoi kaltetzen gaituen arazoa delako eta gure helburua konpontzea edo hobetzea delako. Horregatik, bezeroa guri ordaintzeko prest egongo da.

